

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agustin Zubimendi Lopetegi

*Zumaja,
Gipuzkoa
(1944)*

Aurkibidea



Biografia



Oikia auzoko Lizarraga baserrian jaioa ('Txomiñene' izenez ezagunagoa). 4 anaietan zaharrena zen Agustín. Guraso biak oikiarrak zituen: aita Lizarraga bertakoa eta ama Iparragirre baserrikoa. Txikitan Oikiako eskolan ibili bazen ere, laster joan zen familia Zumaiaiko Kale Nagusira bizitzera (orduan Ignacio Zuloaga kalea) eta Ubillos jauregian kokatua zegoen mesedetako fraideen eskolan jarraitu zituen ikasketak. Umetan San Pedro parrokian akolito gisa ere ibili zen eta 12 urterekin seminariora joan zen. Bankuko langile eta baita zuzendari ere izan zen jubilatutako arte. Zumaiaiko hainbat abesbatzatan parte hartu izanagatik ezaguna da Agustín, bai kantari baita zuzendari gisa ere: 'San Pedro' abesbatza eta jubilatuen 'Beheko Plaza' abesbatza, esaterako, edo hain kuttuna duen Gabon Koruan. Zumaiaiko pilotaren giroa ere gertutik bizi izan zuen gaztetan.

Zintak

ZUM-110

- **Proiektua:** Zumaiaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2021-07-26
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. Oikian jaioa

- **Erref:** ZUM-110/002
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:00:17. **Bukatu:** 00:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Aurkezpena. Oikian jaio zen, Lizarraga baserrian ('Txominene' bezala ezagunagoa). Guraso biak ziren oikiarrak. Umetan baserriko lanak egin behar izaten zituen. Asko aldatu da Oikia. Txikitan bertako eskolan ibili zen baina gutxi, Zumaiara bizitzera joan baitziren. Udako oporrak Oikian pasatzen zituzten. Oikiarrek nortasun propioa dute. Garai batean egon ziren Oikia herri bihurtzeko saiakerak.

2. Oikiatik Zumaiarako bidea oinez

- **Erref:** ZUM-110/004
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:05:07. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Ez du gogoan oikiarren eta zumaiarren arteko pikerik. Oinez egiten zuten batetik besterako bidea. Gutxi batzuetan trenean ere ibiltzen ziren. Gauetz ere trenbidetik oinez eta argirik gabe moldatzen ziren.

3. Garai bateko Oikia

- **Erref:** ZUM-110/005
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Oikian taberna bakarra zegoen, plazan, gaur egun bezalaxe. Dendarik ez zegoen; Zumaiara edo Zarautzera joan behar izaten zuten erosketak egitera. Umetan plazan jolasten zuten. Beraien baserria bertan zegoen gainera. Lehen frontoia ere bazen, asko jolasten zuten pilotan. Eskola ere plazan zegoen eta adin desberdinetakoak batera egoten ziren. Angelita Zinkunegi zumaiarra zen maistra.

4. Lehen dena erdaraz

- **Erref:** ZUM-110/006

- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:10:17. **Bukatu:** 00:13:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Oikiako eskolan gazteleraz ikasten zuten. Gerora ere ikasketa guztiak hizkuntza horretan egin zituen Agustinek. Denborarekin euskaraz egiteko ohitura galdu ere egin zuen. Egunkarian argitaratzen ziren euskarazko kronikak irakurtzera behartzen zuen bere burua. Lagunen artean euskaraz egiten bazuten ere, gaztelerara jotzeko erraztasuna zeukaten. Gaur egun kosta egiten zaio erdaraz egitea.</p>

5. Eskola eta seminarioa

- **Erref:** ZUM-110/007
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:13:09. **Bukatu:** 00:16:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ubillos jauregian kokatzen zen mesedeetako fraideen eskolan ikasi zuen, 12 urterekin seminaria joan arte. Tratua beti ona ez zen arren, berak asko ikasi zuen. Garai haiek gaur egungo begiradarekin epaitzeak zentzurik ez duela uste du. Kale Nagusian zeukaten etxea (orduan Ignacio Zuloaga kalea). Kale berean amak janari denda ireki zuen. Agustinek seminarioa amaitua zuen ordurako eta hasieran dendan laguntzen egon zen. 12 urterekin sartu zen seminarioan eta 17rekin atera. Izatez Donostian zegoen seminarioa, baina ikasle guztiak sartzen ez zirenez, lehen urtea Saturrararen egin zuen. 90 lagun joan ziren; haietatik 30 inguru egin ziren apaiz.

6. Zumaiako parrokiaren eliz mutil

- **Erref:** ZUM-110/008
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:16:43. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eliz mutil ibili zen Zumaiako San Pedro parrokiaren. 7 urterekin hasi eta 12 urtera arte ibili zen (seminaria joan zen arte). Orduan oso ohikoa zen; elizara igandero joaten ziren. Orduko haurrek elizan ikasten zuten kantatzen. Seminaria ere pixka bat bultzatuta joaten ziren orduan. Akolito bakoitzak

apaiz bat izaten zuen arduradun. Paga txiki bat izaten zuten. Agustinek parrokiarekin lotura handia izan du.

7. Kanturako zaletasuna txikitatik

- **Erref:** ZUM-110/010
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Umetan, akolito zebilela, elizako koruan kantatzea nahi izan zuen baina apaizak ez zuela ondo abesten erantzun zion. Seminarioa joan zenean, berriz, lehenengo egunetik solista ipini zuten. Gerora Zumaiaiko koru guztietan ibili da, kantari nahiz zuzendari. Korurako "kaptazioa" tabernetan egiten zen orduan.

8. San Pedro abesbatza

- **Erref:** ZUM-110/011
- **Iraupena:** 0:05:04. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Parrokiko San Pedro abesbatza. Kantari moduan sartu zen eta zuzendari izaten bukatu zuen. Bankuko bere lanagatik ohituta zegoen agintzen eta erabaki azkarrak hartzen. Hasieran gizonak bakarrik ziren koruan eta 45 partaide inguru ziren. Zumaiaiko koruak fama zeukan. Karlos Gorostola Urbietako azkoitiarra zen zuzendari. Geroago Jeronimo Egaña Goikoetxea egon zen eta azkenik Agustin. Elizan bertan entseatzen zuten. 1984an kanpora ateratzen hasi ziren, errepertorioa aldatzen... Gipuzkoako koru ia guztiak elizatik sortu dira.

9. Beheko Plaza jubilatuen abesbatza

- **Erref:** ZUM-110/012
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:28:39. **Bukatu:** 00:31:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Beheko Plaza abesbatzak irabazi izan ditu lehiaketak. Valentin Manterola zuzendari zela, bi aldiz irabazi zuten Madrileko txapelketa. Agustin zuzendari zela Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten. Koru honetako zuzendari izatera nola iritsi zen. 33 urte eman ditu horretan. Gabon koruan ere zuzendari.

10. Zuzendari zorrotza

- **Erref:** ZUM-110/013
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:31:24. **Bukatu:** 00:35:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

San Pedro abesbatza eta Beheko Plaza abesbatza zuzentzen. Bakoitzaren errepertorioa egokitu behar da. Jubilatuen koruan sartu zenean hasieratik aldaketak egin zituen. Zuzendari gogorra zela esaten zuten baina horri esker lortu dute lan ona egitea eta kantuan disfrutatzea.

11. Gabon koruan kantatzetik zuzentzera

- **Erref:** ZUM-110/014
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:35:39. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gabon koruan 18 urterekin hasi zen kantuan eta zuzendari izaten bukatu zuen. 35 urtez zuzendu du. Zerbait berezi dauka gabon koruak, kutsu herrikoia. Koruak 50 urte bete zituenean ia 200 lagunek abestu zuten. 75 urte bete dituztenean (Agustinek ere beste horrenbeste beteta) utzi du zuzendaritza.

12. Gabon koruaren sorrera

- **Erref:** ZUM-110/016
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:38:38. **Bukatu:** 00:41:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Zumaiako gabon korua berezia da. Gazte batzuei bururatu zitzaizen ospitalean zeuden lagunentzako dirua biltzea eta horrelaxe sortu zen gabon korua. Hasieran gizonezkoak bakarrik ziren, gero emakumeak ere bai. Kanpoan bizi direnak ere etorri izan dira kantatzera.

13. Gabon koruko partaideak

- **Erref:** ZUM-110/017
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:41:09. **Bukatu:** 00:44:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gabon korua irekia da, edozein herritarrek hartu dezake parte. Hainbat belaunalditako kantariak elkartzen dira. Gabon korua zer den jakiteko barruan egon behar da. Koruak 50 urte bete zituenean zuzendariei omenaldia egitea pentsatu zuen, haiei esker biziraun baitu gabon koruak. Kantari zaharrek gazteei erakusten diete.

14. Gabon koruko erreperitorioa

- **Erref:** ZUM-110/018
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:44:49. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

Urtero kanta berri bat sartu izan du erreperitorioan. Askotan berak euskaratu izan ditu baina letra egokitzea ez da erraza. Erreperitorio zabala dute, zaila izaten da aukeratzea. Bat latinez kantatzen da ('Adeste fideles') eta beste guztiak euskaraz. Zumaiaiko kantak zumaiaarrez kantatzen dituzte. Ez ditu ahotsetan ipini nahi izan, denek dakizkiten abesti herrikoiak direlako. "Etxetxo txiki honetan..."

15. Gabon koruaren erakarmena

- **Erref:** ZUM-110/021
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:50:34. **Bukatu:** 00:52:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gabon batzuetan Oriotik Zumaiaara etorri zen koruan abestera. Soldaduskatik bueltatu eta hurrengo egunean abestu zuen. Gabon korua zer den jakiteko barruan egon behar da.

16. Gabon kanta gustukoenak

- **Erref:** ZUM-110/022
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:52:08. **Bukatu:** 00:55:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

Kanta gustukoenetakoa aipatzen du: "Irtzen ezazu" Peñafloredarena. Hunkitu egiten da kanta hori harmonizatu zuen Joxe Mari Altuna laguna gogoratzean.

Taldekidetegi gehien gustatzen zaizkienak. Suediar batek hango kanta bat ekarri zuen eta euskaratu egin zuten.

17. Zuzendu dituen beste abesbatza batzuk

- **Erref:** ZUM-110/023
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:55:42. **Bukatu:** 00:57:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Zuzendu dituen beste abesbatza batzuk: Umeen San Pedro txiki abesbatza. Otxotea. Bazkalondo abesbatza.

18. Pilota munduan

- **Erref:** ZUM-110/026
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:01:17. **Bukatu:** 01:05:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Gaztetan pilotan ibili zen. Jokalaria izateaz gain, Zumaiko delegatua eta Gipuzkoako federazioan lehendakariorde izan zen. 37 urtera arte jokatu zuen pilotan; gero utzi egin zuen baina federazioan jarraitu zuen. Odieta frontoia lehen itxia zen eta han jokatzen zuten. Zumaia maila handia zeukan. Dinastia Etxabe txapelketan jendetza izaten zen. Javier Carballo nabarmentzen du pilotaren bultzatzaile gisa. Hura Gipuzkoako federazioko lehendakaria izan zen.

19. Pilota entrenamenduak eta materiala

- **Erref:** ZUM-110/027
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:05:23. **Bukatu:** 01:07:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotan jokatzeke astean pare bat aldiz entrenatzen zuten. Materiala klubak erosten zuen. Dinastia Etxabe txapelketako sarrerekin dezente diru lortzen zuten eta horrek urte osoan iraun behar zuen.

20. Zumaiko pilotariak eta kluba

- **Erref:** ZUM-110/028
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:07:43. **Bukatu:** 01:10:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotan zeintzuk jokatzeko zuten. Palaz: Inazio Letamendi, Ramon Ostolaza, Juan Mari Aierbe, Santos Salsamendi, Sebastian Aristi, Javier Carballo, Jesus Mari Unanue, Agustin Azpeitia, Jose Mari Zubimendi, Cosme Iraundegi... Eskuz: Luis Mari Alberdi, Jose Antonio Aizpurua, Salvador Zubia... Jokalari beraiek zuzendaritzan zeuden. Alde horretatik Zumaiako kluba berezia zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com